

Asisko gutuna

2011ko maiatza. 3. printzipioa. Eguneroko bizimodua:

kanporantz, elkartasuna

31. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Gutun honen bidez Asis sareak gogoeta-gai bat eskaintzen du hileroko, bibliako pasarte batzuekin eta Frantziskoren edo Frantziskori buruzko testuekin. Gai horiek frantziskotar inspirazioko lau printzipioren inguruan dabilta bata bestearen ondoren: (1) harreman pertsonala landu Jainkoarekin (isiltasunean, afektibitatean, otoitzean, zalantzan...); (2)

apaltasunean, (3) solidaritatean, eta (4) senidetasunean. Gutun bakoitzari otoitzaldi batek laguntzen dio hil bakoitzeko azken ostegunean hainbat herritan. Hori dena abagune bat da geldiduna egiteko, elkarri begiratzeko eta entzuteko, eta errealitatea, bizitzarako argi berriak bilatzen dituzten lau angelu erakargarritatik begiratzeko.

Gogoetarako gaia

Solidaritatea aukeratu

Kontrajarriak diren bi modu daude bizitzaren aurrean kokatzeko. Bizitzaren aurrean jo dezakegu zabaltzera edo itxita gelditzera. Bizitza osoan bizi ditugu bi joera horiek, eta bizitzarekin zerikusia duen gauza asko hortik pasatzen da.

Adibidez, seme-alabak bizi ditzakegu eskubide gisa nahiz opari gisa. Beroriek nola hezi planteatzen dugunean, eman diezaiokegu lehentasuna prudentziari, arretari, hezi ditzakegu ezerk molesta ez ditzan, ezerk minik eman ez diezaion, sar diezaikegu buruan geure beldurra. Edo alderantziz ireki ditzakegu mundura, geure etxetik harat ikusten ausartzera, minik eta sufrimendurik ezkututzen ez diegularik, eta errealitatearen aniztasunera irekitzen ditugula. Eta hautapen honen arabera egingo diote aurre, neurri handian, beren bizitzari.

Bizitzari eskatzen diogunak zerikusi handia dauka irekitzeko edo ixteko aukera egitearekin. Aukera dezakegu ez sufritzea, eta horrek zerikusia du ez sentitzearekin, ez ikustearrekin, ez bizitzearekin. Aukera dezakegu eroso eta egoki jartzea halako

konfort batean, halako ziurtasun sententzian, halako norberekerian, eta horrek geure buruan eta hurbilekoengan zentratzera garamatza, geure interesa geure bizitzaren zentro eginez. Gu geu konturatu gabe, egoismoak bere boterea ezartzen du eta gure bizitza murriztuta gelditzen da. Aukera horrek berekin darama ixtea, tolestatzea, estutzea, moztea.

Gure esku dago, nolabait, bizitzara irekitzea: besteengana irekitzea, ditugun interes eta indarrak geure etxeko ateetatik harat erabiltzea, dugun eskubidean soilik ez pentsatzea, ezpada inguratzen gaituen injustiziarik adi begiratzeko, besteen alde sufritzeko prest egotea, geure indar eta ahalmenak eta are ondasunak partekatu ahal izatea, geuretik pixka bat besteengan eta besteentzat uztera, besteen minagatik sufritzea. Tagorek esaten digu: "Bizitza eman egiten zaigu, eta geure burua emanez merezi dugu bera". Bizitza horrela onartzearekin, beraren aurrean gu geu horrela jartzearekin, du zerikusia solidaritateak. Eta Jesusek Ebanjelioan esaten digu: "Ez beldurtu".

Ebanjelioko pasartea: Mt 23, 8-12

"Zuek, ordea, ez utzi inori zuei "maisua" deitzen, bat bakarria baita zuen maisua, eta zuek denak senideak baitzarete. Eta ez deitu lurrean inori "aita", bat bakarria baita zuen aita, zerukoa. Eta ez utzi "gidari" deitzen ere,

bat bakarria baita zuen gidaria, Mesias. Zuetako handiena izan bedi zuen zerbitzari. Bere burua goratzen duena, beheratu egingo du Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena, goratu".

Frantziskotar pasartea: (“¡Horra, andrea, gure klaustroa!”)

Hau da auzia: edota geure burua bizitzara eta besteengana ireki, edo bestela geure zirkulu txikian itxita gelditu. Frantzisko anaiak, argi eta garbi eta zalantzarik gabe, erabaki zuen besteengana irekitzea, solidario izatea, hesiak haustea eta, munduan zehar senidetasunez jauzika mugak gainditzea. Hori ematen du aditzera, senidetasun eta ibiltari izatearen alde egin zuen hautapenak.

Kontakizun zahar baten arabera, “andre Pobretasunak” Frantziskori eta honen anaiei bizi diren klaustroa erakusteko eskatzen dienean, muino baten gainera eramaten dute eta handik ikusi ahal den lurbera guztia erakusten diote, esanez: “Horra, andrea, gure klaustroa: mundu guztia irekita” (SC 63).

Hori da frantziskotar espiritua: harremanean jartzea, solidario izatea, norbera irekitzea; gorantz, Goi-goikoa eta Ahalguztiduna den Jauna bizi den aldera; beherantz, pobreenak eta “txikienak” sufritzen duten aldera; alboetara, anai-arreba gertatzen diren gizon-emakume guztiekiko elkartasunera.

Otoitza

Anaia, Asisko Frantzisko,
Zuk ondora ekarri zenion Kristo zeure aroari;
lagun iezaguzu Kristo ondora ekartzen geure aroari,
geure garai zail eta kritikoei.
Hermano, Francisco de Asís,

Zuk bihotzean eraman zenituen
zeure garaikideen gorabeherak;
lagun iezaguzu gure garaiko andre-gizonen
gorabeherak besarkatzen:
arazo sozial, ekonomiko eta politiko zailak,
gaur eguneko kultura
eta zibilizazioaren arazoak,
egungo gizon-emakume guztien sufrimenduak,
beren zalantzak eta ukamenak,

beren sakabanatzeak, tirabirak,
konplexuak, ezinegonak.

Lagun iezaguzu hori guztia
hizkera ebanjeliko, xume eta onuratsuz
moldatzen.

Lagun iezaguzu konponbidea gauzei
Ebanjelioaren arabera ematen,
horrela Kristo bera
gure garaiko gizon-emakumeentzat
Egia, Bidea eta bizia izan dadin.

Hura Errege bizi baita
Gizaldi eta gizaldietan. Amen.
(Joan Paulo II.ak Asisen)

Gutuneko azken hitzak

“Pertsona ez dago munduan norberari begira bakarrik ibiltzeko, ispiluan bere burua bakarrik ikusteko, baizik eta bere buruaren entrega egiteko eta, ezagutuz eta maitatuz, emana bizitzeko”. Victor Frankl

2011ko ekaineko eguneroko ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate ekaineko erreferentzia guztiak:

1 Jn 16,12-15	7 Jn 17,1-11 ^a	13 Mt 5,38-42	19 Jn 3,16-18	25 Mt 8,5-17
2 Jn 16,16-20	8 Jn 17,11b-19	14 Mt 5,43-48	20 Mt 7,1-15	26 Jn 6,51-58
3 Jn 16,20-23 ^a	9 Jn 17,20-26	15 Mt 6,1-6.16-18	21 Mt 7,6.12-14	27 Mt 8,18-22
4 Jn 16,23b-28	10 Jn 21,15-19	16 Lk 22,14-20	22 Mt 7,15-20	28 Mt 8,23-27
5 Mt 28,16-20	11 Jn 21,20-25	17 Mt 6,19-23	23 Mt 7,21-29	29 Mt 16,13-19
6 Jn 16,29-33	12 Jn 20,19-23	18 Mt 6,24-34	24 Lk 1,57-66.80	30 Mt 9,1-8

Oharrak

·Asis Sareari buruzko informazioa hartu nahi izanez gero, edo gutun hau hileroko hartzeko izen emateko, deitu 646-214896 telefono zenbakira edo bidali mezua asissarea@arantzazu.org helbide elektronikora.

·Asis Sarearen web gunean Gutun honen edukietan sakontzeko lanabes hau aurkituko duzu: “Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldea lan egiteko iradokizunak”.

·Diru-ekarpenak egiteko kontu zenbakia: 0182 0326 15 0201516844 (BBVA).



Asis Sarea

www.asissarea.org

Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldean lan egiteko iradokizunak

Asisko gutuna

2011ko maiatza. 3. printzipioa: eguneroko bizitza:

kanporantz, elkartasuna

31. zenbakia

Solidaritatea da, zoriontsu izateko eta bizitzan asmatzeko hauta dezakegun balore bat. Solidario izateak zera eskatzen du: geure buruari begiratzea besteengana, eta geure bizitzatan gertatzen denera, irekiak ala itxiak bizi garen ikusteko. Hori da hil honetan Asisko Gutunak eskaintzen diguna, Asis Sareko hirugarren printzipioaz gogoeta egiteko: eguneroko bizitza: kanporantz, solidaritatea.

Solidaritatea aukeratu

Hil honetako gogoetan barrurantz begiratzeko gonbitea egiten zaigu, kanporantz begira nola bizi garen deskubritzeko: edo geure baitara itxiak edo inguruan gertatzen denera irekiak. Zeintzuk dira barrurantz tolestarazten zaituzten situazioak? Zeintzuk dira zugar sortzen diren beldurrak, zeure mundu erosoko norbait edo zerbaiz galtzera zoazela sentitzen duzunean?

Gizakia zorionaren bila dabil, zoriontsu izan nahi dugu. Noiz sentitu zara zeure bizitzan zoriontsu? Noiz ireki zara besteengana? Noiz maitatu duzu eta zu zeu maitatua izaten utzi, nahiz eta jakin maitasun horrek sufrimendura eramango zintuela? Eta noiz tolestatu zara zeure baitara? Testua bizitzan asmatzeaz mintzo da. Zer da zuretzat bizitzan asmatzea?

Zuetako handiena izan bedi zuen zerbitzari. (Mt 23,11)

Guri inportanteak izatea gustatzen zaigu, bete gaitzatela "tituluz"; Mateoren testua, berriz, horren kontrakoaz mintzo zaigu: ez dezagula utzi ez maisu, ez aita, ez gidari deituak izaten. Izen horiek gorde ditzagula, soilik, Jaungoiko eta haren Seme Jesusentzat, zeinak, Salbatzaile izanik, umiliatua eta gurutzean hila izaten utzi baitzuen bere burua. Hura munduari zerbitzu egitera etorri zen, eta guk haren jarraitzaile izan nahi badugu, apaltasunean egin beharko dugu hori, jakinik dena Harengandik hartu dugula, eta dena besteen zerbitzuan jartzeko dela.

Zer iradokitzen dizute Jesusen hitz horiek? Sinestunak senidetarenean elkartu behar dugu; Jainkoaren familia gara eta bertan Hura da Aita eta gu denok senideak gara, elkarri zerbitzu egiten bizitzeko.

Horra, andrea, gure klaustroa!

Testuak dioenez Anai Frantziskok, bera eta bere anaiak non bizi diren erakutsi nahi dio "andre Pobretasunari". Eta toki hori, mundu guztira irekitako panorama eskaintzen duen muino baten gaina da, hain zuzen.

Mundura irekita bizi gara gu? Edo alderantziz, fedea bizitzea eta Jesusi jarraitzea "modan" ez dagoen garai honetan, ez al gara geure baitara tolestatzen ari, beldurrak eta zalantzak oztopo ditugularik irekitzeko eta ingurura eta senideei begiratzeko?

Gure mundua toki ireki egitera deituak gaude, bertan besteei gertatzen zaie arduratzen garelarik, zein den edo zer egiten duen begiratu gabe, soilik "klaustro berean bizi den" senide gisa hari begiratu berarekin solidario izateko.

Zeintzuk dira nire zailtasunak mundura, gertuen ditudanetatik hasita, irekitzeko?.

"Lagun iezaguzu Kristo ondora ekartzen geure aroari"

Geure etxe dugun mundua krisian dago mota guztietako zailtasunekin (ekonomikoak, sozialak, balore etikoak etab.). Otoitz honen bidez eska diezaiokegu Anai Frantziskori, lagun diezagula Jesus piztua, Kristo, ondora ekartzen une zail hauetan sufritzen duten pertsoneri.

Egizu otoitz apalki otoitz honen bidez, eta eskatu Frantziskori lagun diezagula sufritzen duen senidearen ondoan egoten, eta adore eta itxaropenezko hitzak munduari ematen.